

SEGMENTAZIOA

Gure proiektuaren xede nagusia familiak izango dira. Jaladame enpresa familiei zuzenduta egongo da, hurrekin lana egingo dugu batez ere, baina familia guztiak parte hartu beharko du. 0-6 urteko hurrei egongo da bideratuta batez ere zerbitzu hau eta aldika, familientzat hitzaldi informatiboak emango dira.

Bestalde, merkatuaren segmentu desberdinak azaltzea gustatuko litzaiguke. Hasteko gure enpresa Bilbon kokatuko dugu. Bilbo udalerrri handi bat da eta gertuko herrietako familiak bertara gerturatzeko erraztasun handiak dituzte, autobusak, trenak, metroa... Gainera, maiztasun handiz daude zerbitzu hauek. Bilbok daukan biztanleria 345.821 pertsonakoa da eta Bilbo aldea edo Bilbo Handiaren biztanleria

857.044 pertsonakoa da eta eskualdea 26 udalerriz osatzen da. Mugakide hauek ditu: iparraldean Kantauri eta Arabako golkoa; ipar-ekialdean Mungialdea (Sopela, Urduliz, Laukiz, Gatika, Mungia eta Gamiz-Fika) eta Busturialdea (Morga); hego-ekialdean Durangaldea (Zornotza, Lemoa eta Bedia); hegoaldean Arratia-Nerbioi (Zeberio, Ugao eta Arrankudiaga); eta mendebaldean Enkarterri (Gueñes eta Galdames) eta Kantabria (Castro Urdiales).

16.000 haur inguru daude Bilbon 0-6 urte bitartekoak kultura, arraza eta kultura maila desberdinetakoak. Haur guzti horiei zerbitzua eskainiko diegu, baina gehienbat euren umeen hezkuntzan parte hartze aktiboa duten familiei bideratzen diegu gure zerbitzua. Gainera, familiei eta herritarrei hitzaldi informatiboak eskainiko dizkiegu, gure zerbitzua herrian deigarria izateko. Horrez gain, familia bakoitzarekin batzar indibidual informatiboak egingo dira haurrak ematen dituen aurrera-pausuak elkarrekin elkar trukatzeko.

Marketin kanpaina ez da familia tradizionalei bideratuta egongo, baina gure zerbitzua edozein pertsonak erabili dezake. Gehien bat baso eskoletan eta konfiantzaren pedagogian oinarritzen diren zentroetan emango ditugu hitzaldiak. Beraiekin aliantzak sortuko ditugu eta gure eskuhartzea behar duten kasurik balego, behar emozional bat edo adimen emozionala lantzeko kasuren bat, gurekin harremanetan jarriko lirateke.

Zerbitzuaren maiztasuna familia eta hurren araberakoa izango da, gehienez, astean bi saio emango zaizkio hurrari, bere denborak errespetatuz. Gehienetan, hurrekin saioak arratsaldeetan izango dira, klaseak goizetan izaten dituztelako, baina familiekin goizetan eta arratsaldeetan egin daitezke batzar eta saioak, beraien eta gure prestasunaren arabera erabakiko dugu.

Azkenik, Bilbo eta inguruan ez dago lehiakortasun handirik gai honetan. Eskola eta udaleku batzuetan lantzen den gaia da, baina ez zaie arreta hain pertsonalizatua eskaintzen.